Nola adierazi data?

IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Data nola adierazi?

Euskaltzaindiaren **37. arauan** zehazten da data nola adierazi behar dugun, eta bertan honako forma hauek gomendatzen dira letraz zein zenbakiz emateko:

Bermeo(n), 2018ko martxoaren 24a(n)

2018/03/24; 2018/III/24

2018-03-24; 2018-III-24



Ohiko akatsak

—*n* kasu marka: Leku izenari eta egunari eransten zaion marka aukerakoa da; baina jartzea hautatzen bada, bietan jarri behar da.

* Bilbon, 2018ko urriaren 14a
Bilbon, 2018ko urriaren 14an

Urteari dagokion zenbakia punturik gabe jarri behar da; tarte zuririk ere ez du behar. Okerrak dira, beraz:

*2.018ko/ *2 018ko
2018ko



Ohiko akatsak

Leku izenari eta zenbakiei eransten dizkiegun deklinabide markak inolako tarte edo ikurrik gabe jarriko ditugu; beraz, ez dira zuzenak:

* Bermeo-n, 2018-ko martxoaren 24-a(n)
* Bermeo(n), 2018 ko martxoaren 24 a(n)
* 2018-03-24 ko *Administrazioa Euskaraz* aldizkarian

Honela beharko lukete:

Bermeon, 2018ko martxoaren 24an
2018-03-24ko *Administrazioa Euskaraz* aldizkarian

Hilabeteen izenak datan beti letra xehez.

Testuinguru batzuetan...



Data osorik adierazi beharrean, batzuetan nahikoa da hilabetea eta eguna adieraztearekin.
Bi dira aukerak:

martxoaren 24a
martxoak 24

Bigarren aukera beste zerbaiten aposizioan doanean soilik erabiliko da:
Bihar, martxoak 24, bukatuko da dokumentuak aurkezteko epea.

Bibliografia

- Gorostiza, Aitor: "Data eta orduak idazteko komeriak", *Administrazioa Euskaraz* aldizkaria 27. zk., 16. or.
- EUSKALTZAINDIA: 37. araua, "Data nola adierazi"

IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA